

# Literatura-literatura



UXUE APAOLAZA LARREA

**D**iktaturaren aurkako borrokaren eredia, kaiku bat janztea. Biktimen Oroimenezko Zentroan, Meliton Manzanos. Bakearen alde Ukrainari erasorako armak bidali (ez nekien eman, saldu, utzi, zer aditz jarri, bidali, tira, bidali). Eta haurrak: ama, egingo ditugu txistek? Etxe bat teilatu baten gainean. Artzain pilo bat, eta ardia artzainak zaintzen.

Nola erabaki garaia dela umeari liburu bat irakurtzeko? Baudela ulertzeko gaitasuna? Ulertzeko, zer? Mezua? Zer mezu? Ez daki irakurtzen. Badakizki hizki batzuk, bokal guztiak eta konsonante batzuk. Badaki galdera ikurra zer den, harridura ikurra eta punto. Ahozabalik jarraitzen die belarri eta begiz oraindik izpi txikiak baino bidaltzen ez dizkioten lerroei. Eta badaki lerroak non hasten diren, eta noiz hasten diren jolasean.

Gordeta nituen bi poema liburu atera ditut. Bost urte ditu. Barrez lehertu da oso barregarria iruditu zaiolako itsasoa botila baten barruan egotea, poema bat tiroz beteta ikustea, hizkiak ispiluan, “ama, irakurri berriro”, “berriro”, ez daki zerk egiten dion grazia. Zonbiek beti dute arrakasta gurean, eta ilusioa egin diote kantatzen zekizkien poemek. Beste liburuko lerro bihurri guztiak berrirakurri ditu, “hemen jartzen du glu-glu-glu”, eta “hau da zzzzzzzzzzz”, “ate bat!”, “zergatik esan du hori?”, “zer da esnatuta amets egitea?”. Berak ez jakitea.

“Ezin dut lo egin, utzi pasiloko argiarekin lehengo liburuak ikusten”. Ez daki irakurtzen. Nik poz gaizto bat sentitu dut, lotura askatzaile bat ia ilunpean bi liburuei begira zein aukeratu ez zekiela ikusi dudanean. Ohartuko da, nonbait erregistratuta geratuko da, gogoratuko da...? Ziur nago momentu honetan, koltxoian apatx eginda eta marrazki eta lerroekin hizketan, ez dagoela ikusten dudana lekuan, han dagoela. Eta ahazten ez bazaio (bizitza osoa du horretarako), ez da inoiz bakarrik egongo, ez da inoiz aspertuko. ●

# GUDABERRIRAKO PREST!



## Esklabotza

Paperik gabe daudela aprobeztatu eta astelehenetik igandera egunean hamabi ordu lan egitera behartu dituzte 21 langile, Donostiako bi jatetxetan (Esquina de Senra eta Bar Senra). Enpresaburu bera dago guztiaren atzean. Albistea jakin eta gutxira pintaketak egin dizkiote atean.

## Euskara

B2 euskara mailarik gabeko udaltzain hautagaiak hartu beharko ditu Arkautiko Polizia Akademiak, UGTren helegitea onartu eta epaia berretsi baitu orain Gasteizko Administrazio Auzitegiak. Erabakia irailan hartu zuen epaitegiak, eta bitarte horretan administrazioak ez du helegiterik jarri.

## Pobrezia

Kartoi eta egurrezko txabola batek su hartu du Bilboko Bolueta auzoan, eta 70 urte inguruko pertsona bat hil da. Dirudienez, txabola bizilekutzat zuen etxerik gabeko pertsona bat da zendutakoa. Iazko urtarriletik hona, gutxienez lau dira Bilbon hildako etxerik gabeko pertsonak.